Espediente zk./Nº Expediente**:** 2021OZER0030
Gaia/Asunto**:** Beraungo Erretiratuen Elkarteko taberna-jatetxea zerbitzua Lagatzea/Concesión del Servicio de bar-restaurante del Club de personas jubiladas de Beraun
Eskatzailea/Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
Kokalekua/Emplazamiento**:** ERRENTERIA

UDALAREN BERAUNGO ERRETIRATUEN ELKARTEAREN TABERNA-JATETXEA ZERBITZUAREN USTIAPENAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. ARTIKULUA

Kontratuaren xedea

Deialdi honen xedea da BERAUN Erretiratuen Udal Elkarteko taberna-jatetxearen zerbitzuaren ustiapena ematea.

2, ARTIKULUA

Kontratistari ordainketa

Adjudikazio-hartzaileak ordain gisa zerbitzuaren ustiapenetik ateratzen dituen diru-sarrerak jasoko ditu.

3, ARTIKULUA

Kontratuaren indarraldia

Kontratuak 2 urteko iraupena izango du eta gehienez beste 2 urtez luzatu ahal izango da.

4. ARTIKULUA

Esleipendunak zerbitzuaren eskura jarri beharreko giza baliabide, materialak eta besteak

- Giza baliabideak:

- Lantalde nahiko izatea, sukaldean zein mahai zerbitzuan eta barran zerbitzu egokia bermatzeko, horretarako I. ERANSKINEAN adierazitako estimazioa kontutan izanik.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONCESIÓN DEL SERVICIO DEL BAR-RESTAURANTE DEL CLUB DE PERSONAS JUBILADAS DE BERAUN DE TITULARIDAD MUNICIPAL

ARTICULO 1.

Objeto del contrato y tipos de servicio a prestar

Es objeto de la convocatoria la concesión del servicio Bar-restaurante del Club de Personas Jubiladas de BERAUN, de titularidad municipal.

ARTICULO 2.

Retribución del contratista

El adjudicatario recibirá como contraprestación los ingresos que obtenga de la explotación del servicio.

ARTICULO 3.

Plazo de vigencia del contrato

El plazo de ejecución del contrato será de 2 años, pudiendo prorrogarse como máximo por otros 2 años más.

ARTÍCULO 4

Recursos humanos, materiales y otros que la empresa tiene que poner a disposición del servicio.

- Recursos humanos:

- Contar con un equipo de personas que asegure el buen servicio tanto en la barra como en la cocina y servicio de mesas de acuerdo con la estimación que en el plan de viabilidad del ANEXO I se indica.

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

- Zerbitzua zuzenean emateko enpresak proposatuko dituen gizabaliabideek gutxienezz eskola-graduatua edo baliokidea eduki beharko du.

- El personal que la empresa proponga para prestar el servicio deberá acreditar al menos estar en posesión de la titulación de graduado escolar o equivalente.

- Lanean ariko diren pertsonek **elikagaien manipulatzaile izateko titulua** eduki beharko dute, baita beharrezkoa diren beste baimenak ere.

- Será necesario que todas las personas que vayan a prestar el servicio tengan el **título de manipulador de alimentos oficial y actualizado**, así como cuantas autorizaciones sea preciso obtener.

Kontratista esleipendunaren betebeharra izango da, langileekiko lehiaketaren unean indarrean dauden hitzarmen kolektiboen bitartez finkatutako laneko obligazio eta eskubideak bermatzea, eta lana eta gizarte segurantza babesten duten legeek xedatutakoa bete beharko du bere alderdi guztietan.

Será obligación del contratista adjudicatario, reconocer los derechos y obligaciones laborales según el convenio colectivo que se les aplique en el momento de la licitación, quedando obligado a lo dispuesto por las leyes protectoras del trabajo y la seguridad social en todos sus aspectos.

Udalak ez du zuzenbide, lan edo beste edozein alorretako harremanik edukiko esleipendunaren langileekin, ez kontratua dagoen bitartean, ezta hori amaitzean ere, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratu hau dela eta sor litezkeen obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

El Ayuntamiento no tendrá ninguna relación jurídica o de cualquier otra índole con el personal del adjudicatario, durante la vigencia del contrato ni al término del mismo, siendo por cuenta del adjudicatario todas las obligaciones, indemnizaciones y responsabilidades que nacieran con ocasión a este contrato.

Kontratatzen den enpresa derrigortua egongo da zerbitzu honetan lan egingo duten langileen lan baldintzen inguruan Udalak eskatzen dion informazioa ematera.

La empresa contratada estará obligada a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que se apliquen efectivamente a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato.

<u>- Baliabide materialak:</u>

- II. Eranskinean eransten zaion inbentarioaz gain, behar diren makinaria, hornidura eta tresna osagarriak.

<u>- Recursos materiales:</u>

- Maquinaría, menaje y utensilios complementarios a los señalados en el inventario adjuntado en el ANEXO II.

<u>- Besterik:</u>

- Zerbitzuak dituen arriskuak kontutan dituen erantzukizun zibila duen aseguru poliza kontratatu beharra izango du.

  Aldi berean, esleipendun enpresak kontratatutako prestazioak era

<u>- Otros:</u>

- Póliza de responsabilidad civil que dé cobertura a los riesgos derivados de la ejecución del contrato.

  Así mismo el adjudicatario asumirá otros gastos y necesidades de

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

egokian emateko beharrezkoak diren gainontzeko gastu guztiei ere aurre egin beharko dio, hala nola ekipamentuen mantenu egokia egiteko gastuak, sukalde, komedore, taberna, aldagela eta/edo trasteroaren garbiketa gastuak, beste zerbitzu profesionales gastuak, aseguruen primak eta besteak.

financiación tales como: mantenimiento adecuado del equipamiento, limpieza del espacio cocina, comedor, barra, vestuarios y trastero, servicios profesionales independientes, primas de seguros y otros gastos que deban realizar para el normal cumplimiento de las prestaciones contratadas.

5. ARTIKULUA

Adjudikazio-hartzailearen betebeharrak

- Taberna-jatetxea publikoarentzat urte osoan irekita edukitzea, eta Zentro Sozialeko zerbitzu guztiak emateko moduan. Taberna oporretako hilabetean (abuztuan) eta astean behin itxi ahal izango da, betiere, Zuzendaritza Batzordearekin adostuta.

- Era berean, egun hauetan egon daiteke itxita: urtarrilaren 1 eta 6, Aste Santuko jai egunak, ostegunetik Pazko astelehenera arte (5 egun) eta abenduaren 24, 25 eta 31.

- Udalak ezarritako jendaurreko ordutegia betetzea, 10.00etatik 21.00etara hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, ordutegian aldaketa puntualak egin behar izanez gero, Udaletxeari eskatu beharko zaio baimena, beti ere aurretik elkartearen Zuzendaritza Batzordearena izanez gero.

- Egun berezietan, adibidez, auzoko jaietan, Gabon zaharrean, Inauterietan, Madalenetan,... barrako ordutegia zabaldu ahal izango da, gehienez 24:00ak arte.

- Jubilatu etxeko instalazioak ireki eta ixtea bere ardura izango da. Giltzak izango ditu bere ardurapean eta horien erabileraren gaineko erantzukizuna, eta instalazioen barruan ordena eta elkarbizitza egokia eta segurua izateaz arduratuko da.

ARTICULO 5.

Obligaciones de la empresa adjudicataria del contrato

- Mantener abierto al público el servicio todos los días del año, pudiendo permanecer cerrado el mes natural de vacaciones (agosto), así como un día de descanso semanal que se establecerá previamente con la Junta Directiva del Club.

- Igualmente, puede permanecer cerrado, los siguientes días: 1 y 6 de enero, los días festivos de Semana Santa de jueves a lunes de Pascua (5 días), y 24, 25 y 31 de diciembre

- Cumplir con el horario de apertura que será de 10.00 a 21.00 horas. No obstante en caso de necesidad de cambios puntuales de horario habrá de solicitarlo al Ayuntamiento, previo consentimiento con la Junta Directiva del club.

- En fechas señaladas como por ejemplo en las fiestas patronales del barrio, Carnavales, Magdalenas,... podrá ampliarse el horario de la barra hasta las 24:00 horas como máximo.

- Llevar a cabo la apertura y cierre del club, siendo depositario de las llaves de acceso y respondiendo de su uso, cuidando del orden y la adecuada y segura convivencia dentro de las instalaciones.

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

• Eguneko menua" eskeini behar da, goizeko lehenengo orduan jendaurrean jarriko ditu menuaren osaera eta prezioa.	• Ofrecer un "menú del día", reflejando la composición y el precio a primera hora en el tablón de anuncios.
• Taberna-jatetxearen instalazioak eta tresnak egunero garbitzea. Garbitzeko produktu eta tresna guztiak adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira.	• Efectuar la limpieza diaria de las instalaciones y enseres destinados al Bar-restaurante. Siendo todos los productos y útiles de limpieza por cuenta del adjudicatario.
• Jendearentzat irekita dauden establezimenduetarako indarrean dauden osasun arloko arau eta xedapenak betetzea. Debekatua dago erretzea, bai tabernan bai elkartean.	• Cumplir las normas y disposiciones de carácter sanitario vigentes para establecimientos abiertos al público. Quedando expresamente prohibido fumar en todas las dependencias, tanto del bar como del club.
• Produktuak baldintza onetan egon beharko dute, hots, ekoizteko, biltegian edukitzeko eta saltzeko garaian, etiketaz osaturik, ondo ontziratuta, eta abar egongo dira. Hori guztia kontuan izanik platerak prestatu eta presentatzeko orduan.	• Mantener los productos en las adecuadas condiciones sanitarias y de seguridad en lo que se refiere a la elaboración, la comercialización y etiquetado, a las condiciones de almacenamiento y envasado, así como manipulación y presentación de los platos preparados.
• Zerbitzu ona ematea eta publikoa jendetasunez tratatzea, taberna-jatetxean zein atezaintza eta garbitasun zerbitzua ematerakoan, jangelako zerbitzu egokirako behar dena barne. Era berean, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun-elikagaien arloko arau eta xedapenak bete beharko ditu.	• Mantener un esmerado servicio y corrección al público, tanto en lo que se refiere al Bar-restaurante como al de Conserjería y limpieza de las instalaciones, incluidas las necesarias para el correcto servicio de comedor, y asimismo deberá cumplir cuantas normas o disposiciones de carácter sanitario-alimentario se dicten para establecimientos públicos.
• Ondorengoengatik sortutako gastuei aurre egitea:	• Asumir los gastos derivados por:
○ Ostalaritzako ekipoak konpondu eta mantentzeagatik eta erabiltzearen poderioz hondatzen den taberna-jatetxeko materiala erosteagatik ere.	○ Las reparaciones y el mantenimiento de equipos de hostelería, así como por la reposición del material de bar-comedor que por su uso se deteriore.
○ Instalazioak eta sukalde eta tabernako tresnak garbitzeko erosi beharreko garbitasun eta higienerako materialak erosteagatik.	○ La adquisición de materiales de limpieza e higiene respecto a la limpieza de instalaciones y enseres de cocina y bar.
○ Tokiko prentsa erosi, WIFI-a eta telebista kanal pribatuak instalatzeagatik.	○ La compra de prensa local, servicio WIFI e instalación de canales privados de TV.

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

Ura, argia, gasa eta alarma zerbitzuen gastuak udalak egingo die aurre.

Los gastos de agua, luz, gas y de la alarma serán a cargo del Ayuntamiento.

- Ezin izango die kontratua hirugarren batzuei transferitu. Era berean, ezin izango ditu kartelak, letreroak edo publizitate iragarkiak jarri, ezta inolako obrarik egin ere, Udaletxearen berariazko baimenik gabe. Debekatuta dago jolas makinak eta txanpon makinak instalatzea.

- No podrá transferir el contrato a terceros. Asimismo, tampoco podrá colocar carteles o anuncios publicitarios de ningún género, ni realizar obra alguna sin autorización expresa del Ayuntamiento, quedando expresamente prohibido la instalación de máquinas de juego o tragaperras.

- Kontratuaren titularra baja egoeran egongo balitz (gaixotasun, istripu nahiz beste edozein arrazoiren ondorioz), titularra ordezkatzea baimenduko da. Betiere, kontratutako pertsonak Lan eta Gizarte Segurantzan arloan eskatutako baldintzak betetzen baditu eta ordezkapen horrek zerbitzua ematean kalterik eragiten ez badu. Ordezkapena idatziz jakinarazi beharko zaio Udalari. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango, adjudikazio-hartzailearen gain izango delako legeek ezarritako betebehar eta eskubideak betetzea. Horretaz gain, ostalaritzako lan-hitzarmenean jasotakoa betetzeko konpromisoa hartuko du bere gain.

- Se autorizará la sustitución del titular en caso de baja por accidente o enfermedad, siempre y cuando la persona contratada se encuentre en las condiciones requeridas por las disposiciones legales vigentes en materia de Trabajo y Seguridad Social y que igualmente dicha sustitución no cause perjuicio en los servicios que se presten. Esta sustitución deberá ser comunicada por escrito al Ayuntamiento, sin que exista ninguna responsabilidad para el mismo con relación a dicho personal, siendo el adjudicatario quien asuma las obligaciones y derechos establecidos por las leyes y comprometiéndose a cumplir lo establecido en el convenio colectivo de hostelería.

- Kontratudunak gaixotasun, istripu edo beste edozein gauzagatik baja hartuta ere ez du eraginik izango adostutako zerbitzuetan.

- La posible situación de Baja del titular del contrato, bien sea por enfermedad, accidente o cualquier otra causa, no podrá afectar los servicios acordados.

- Errenteriako Udala, kontratu hau hasteko unean II. ERANSKINEAN aipatzen diren tresnak, makinak eta gauzak ditu instalatuta. Lagapena amaitzean, horiek guztiak Udalaren esku gelditu dira hasierako erabilera baldintza berdinetan.

- El Ayuntamiento de Errenteria, en el momento de comenzar este contrato tiene instalados los útiles, maquinaria y enseres a los que se hace referencia en el ANEXO II, los cuales revertirán al Ayuntamiento en las mismas condiciones de uso al final de la concesión.

- Udalak lokalaren funtzionamenduaren zaintza eta kontrola egin ahal izan du, barruko ordena, irekitzeko eta ixteko ordutegia, lokalen eta zerbitzuen garbitasun eta higiene baldintzak, taberna eta sukaldea barne, manten daitezen. Horretarako, Udalak sarbide librea izango du Elkarteko toki eta instalazio guztietara.

- El Ayuntamiento podrá realizar la función de vigilancia y control respecto al funcionamiento del local, orden interior, horario de apertura y cierre, limpieza y condiciones sanitarias de los locales, dependencias de bar y cocina. Para ello el Ayuntamiento tendrá libre acceso a todos los lugares e instalaciones del Club.

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

- Akatsen bat aurkituko balitz horren akta egingo da. Lehenengo aldian idatzizko abisua emango zaio, eta bigarren bat gertatuz gero kontratua eten egingo da. Horrelakoetan adjudikazio-hartzaileak ez du inolako eskubiderik izango eta lokala utzi eta Udaletxearen esku utzi beharko du errekerimendua egiten zaion egunetik hiru eguneko epean.

- Ez balu lokala utziko, izan dezakeen erantzukizun penalaz gain, Udalak bere edozein organoren bitartez hori egitera derrigortuko duten neurriak erabili ahal izango ditu.

- Si se encontrase alguna deficiencia se levantará la oportuna Acta, que en la primera ocasión dará lugar a apercibimiento por escrito, y en la segunda producirá el efecto de rescisión del contrato sin derecho alguno para el contratante; que habrá de abandonar el local y ponerlo a disposición del Ayuntamiento en el plazo de tres días a contar de la fecha del requerimiento.

- Si no abandona el local, además de la responsabilidad penal en que pueda incurrir, el Ayuntamiento a través de cualquiera de sus órganos, podrá emplear medidas coactivas y de apremio conducentes a tal fin.

6. ARTIKULUA

Kontratua exekutatzerakoan bete beharreko hizkuntza-baldintzak

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria, Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 6. eta 7. artikuluetan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste Errenteriako Udalak bere eskumenen baitan onartutakoak: Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantza (1997-03-18) eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (2013-12-18)

Hori horrela, Udal araudia beteko da, Udal Hizkuntza Politika sailaren txostenean jasotakoaren arabera.

Hizkuntza ofizialen erabileraren inguruko exekuzio baldintzak

Baldintza-agiri honetan ezarritako

ARTÍCULO 6

Condicionantes lingüísticos que deberán cumplirse durante la ejecución del contrato

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en sus arts. 6 y 7 y por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de normalización del uso del euskera, así como por la normativa desarrollada por el Ayuntamiento de Errenteria en el ejercicio de sus competencias: Ordenanza Municipal para la Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria (18-03-1997) y Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales (18-12-2013).

A estos efectos, deberá darse cumplimiento a la normativa municipal, conforme a lo señalado en el informe del área de Política Lingüística Municipal del Ayuntamiento.

Condiciones de ejecución en relación al uso de las lenguas oficiales

Las obligaciones impuestas en este pliego se

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu beharko dira.

establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea. Hori horrela, zerbitzu honetako zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística. Es por ello que las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza irizpideak bermatuko dira.

En todo caso, siempre se respetarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

a) Hizkuntza gaitasuna:

a) Competencia lingüística:

Kontratuaren indarraldi osoan enpresa adjudikazio hartzaileak erabiltzaileekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan gauzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Durante todo el periodo contractual, las personas trabajadoras que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa con las personas usuarias del servicio deberán estar capacitadas para trabajar en las dos lenguas oficiales.

Enpresak hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko konpromiso-orria (III ERANSKINA) sinatuko du baldintza-agirian zehaztutako hizkuntza gaitasun maila duten langileak kontratatuko dituela adierazteko, une oro herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

La empresa adjudicataria firmará una hoja de compromiso (ANEXO III) al objeto de declarar que contratará personal con la capacidad lingüística señalada en el pliego de condiciones técnicas, y garantizar de esa manera los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Lehiatzaileak lana egingo duten pertsonen zerrenda aurkeztuko du bere eskaintzan, horien guztien euskararen ezagutza adierazita.

Las empresas presentarán en sus ofertas la relación de personas que emplearán e indicarán el conocimiento de euskera de las mismas.

Nolanahi ere, eskaintza egiteko unean lehiatzaileak ez badu lana garatuko duten pertsonen zerrenda zehazterik, adjudikazio-hartzaile suertatzen bada, adjudikazioa egin aurretik bermea jartzeko ematen zaion epean eskatutako euskara gaitasuna duten langileak izendatu beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak Errenteriako Udalari aditzera emango dio pertsona horien zerrenda.

Si en el momento de realizar la oferta las empresas no están en disposición de precisar la relación de personas que emplearán, tras la adjudicación del servicio aquella que resulte adjudicataria deberá designar el personal con la capacidad lingüística en el plazo concedido para depositar la fianza. Deberá, asimismo, presentar la relación de dichas personas al Ayuntamiento de Errenteria.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk hartu edo kideren bat aldatuko balitz, adjudikazio-hartzaileak aurretiaz emango dio

Una vez realizada la contratación, en el caso de que alguna nueva persona se incorpore al servicio o alguna de las personas trabajadoras sea sustituida, la

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

administrazio kontratatzaileari horren berri. Langile horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna izan beharko dute. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langilerik balego horiek ordezteko kasuan ere.

Kontratu honetan zehazki:

Kontratuaren helburu den zerbitzua emateak herritarrekin zuzeneko harremanean lan egitea eskatzen du, eta bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskaintzeko, kontratuari atxikitako langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako gaitasun mailen pareko gaitasunaren jabe izan behar dute (IV. ERANSKINA)

- Kontratuaren zereginak jendaurrean gauzatuko dituzten pertsonek B2 gaitasunaren mailaren pareko maila izango dute.

- Ahozkoan: Hizkuntza eskakizun honen jabeak gai izan behar du informazioa eman eta eskatzeko, aurrez aurre zein telefonoz, eta elkarrizketak aisetasun nahikoarekin egiteko.

- Idatzizkoan: gai izan behar dute agiri errazak idazteko (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak)

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza

- Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emango du Errenteriako Udalak emango lukeen baldintza berdintsuetan. Kontratuaren xedea osatzen duten zereginak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, betiere zerbitzuaren berezko ezaugarriek beste hizkuntza batean edo batzuetan ere egitea eskatzen ez badu.

c) Hizkuntza paisaia

- Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua

empresa adjudicataria deberá comunicárselo a la administración contratante. Quien realice la sustitución o quien se incorpore deberá disponer de la capacidad lingüística solicitada. Habrá de cumplir ese mismo requisito en los casos de sustitución de personal contratado mediante subrogación, si lo hubiera.

En este contrato, en concreto:

La prestación del servicio objeto del contrato exige una relación directa con la ciudadanía, por lo que al objeto de ofrecelo con total garantía es necesario que en función de las tareas que desempeñen las personas trabajadoras durante la duración del contrato tengan una competencia lingüística similar a la recogida en el Marco Europeo de Referencia para las Lenguas (ANEXO IV).

Las personas encargadas de la ejecución de las tareas del contrato en contacto con la ciudadanía tendrán un nivel de competencia lingüística similar al B2

- Competencia oral: tendrán capacidad lingüística para solicitar y ofrecer información, tanto en las relaciones presenciales como telefónicas, y para mantener una conversación de manera fluida.

- Competencia escrita: tendrán capacidad para redactar documentos sencillos (impresos, notas, avisos, horarios)

b) Idioma que se utilizará en la prestación del servicio

La empresa adjudicataria realizará el servicio en unas condiciones similares a las que de hecho se exigen al Ayuntamiento de Errenteria. Las tareas que constituyen objeto del contrato se realizarán en ambas lenguas oficiales, salvo que de las características intrínsecas de la prestación se derive que exigen además su realización en otra u otras lenguas.

c) Paisaje lingüístico

- Los rótulos, señalización, avisos, carteles y

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egongo dira.

- Mezuak piktograma bidez egingo dira

- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan (udaletxea, kultur etxea,...)

- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin adostuta.

d) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa

Kontratuan zehar eratu eta Udalari entregatzen zaizkion agiriak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, dokumentu horien hartzaileen lan-hizkuntzaren arabera (langileak eta ordezkari politikoak). Hori horrela, honela egingo dira.

e) Hizkuntza baldintzen jarraipena

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

- Gizarte Zerbitzuak sailak harremanetan jarriko ditu enpresa adjudikazio-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika saila, jendaurrean arituko diren langileei euskara gaitasuna egiaztatzeko elkarrizketa egin diezaien, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskain dezaketen egiaztatzeko asmoz. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako titulazioren bat aurkeztuz gero, berriz, ez dute elkarrizketa egin beharrik izango. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat

resto de comunicaciones de carácter general que instale la empresa adjudicataria al prestar el servicio, se harán en euskera o en los dos idiomas oficiales.

- Los mensajes se realizarán mediante pictogramas.

- Cuando no pueda utilizarse un pictograma, se realizarán en euskera cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano o se trate de palabras de uso extendido (udaletxea, kultur etxea...)

- Si los casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

d) Presentación de documentos a la Administración

Los documentos producto de la prestación del servicio se realizarán en euskera o en los dos idiomas oficiales, en función de la lengua de trabajo de las personas receptoras (personal laboral y representación política)

e) Seguimiento de los criterios lingüísticos

El Ayuntamiento realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

El área de Servicios Sociales pondrá en contacto a la empresa adjudicataria con el departamento de Política Lingüística Municipal al objeto de que realice una entrevista a las personas designadas para la prestación del servicio de atención directa al público, en la que se verifique que tienen la capacidad lingüística necesaria para trabajar con total garantía en los dos idiomas oficiales. Quienes presenten alguna de las titulaciones recogidas en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas no tendrán

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Elkarrizketa eguna eta ordua Udal Hizkuntza Politikak adostuko du zerbitzua jendaurrean emango duten langileekin, eta gehienez ere zerbitzua ematen hasi eta hamabost egunera egingo da.

Udal Hizkuntza Politika sailak elkarrizketa egin duten langile guztien euskara gaitasunaren inguruko txostena emango du. Zerbitzua jendaurrean ematen jarraitzeko ezinbestekoa da Udal Hizkuntz a Politikaren aldeko txostena eskuratzea. Elkarrizketan jendaurreko funtzioak bi hizkuntzetan betetzeko beharrezko gaitasuna egiaztatu ezean, langilea ordezteko eskatuko zaio enpresari.

Zerbitzua ematen den bitartean, eta hizkuntzari dagokionez zerbitzuari egindako jarraipenean oinarrituta, Udalak uste badu baldintza teknikoen agirietan jarritako hizkuntza betebeharrak ez direla bete, arau-hausteen ondoriozko prozedura jarriko du martxan (kontratua amaitu edo penalizazioak ezarri, kasuan-kasuan).

que realizar la entrevista. Asimismo, en base al Decreto 47/2012 de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

El día y hora de la entrevista serán consensuadas entre el departamento de Política Lingüística y las y los profesionales, y se realizará como máximo dentro del plazo de quince días desde el comienzo de la prestación del servicio.

El departamento de Política Lingüística Municipal emitirá informe sobre cada persona que realice la entrevista. Para prestar servicio de cara a la ciudadanía es imprescindible el informe favorable del departamento de Política Lingüística Municipal, por lo que se exigirá a la empresa que sustituya a las personas que en la entrevista no acrediten la capacidad lingüística necesaria para desempeñar sus funciones de atención al público en los dos idiomas oficiales.

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda)

7. ARTIKULUA

Laneko Arriskuen Prebentzioa

Enpresa adjudikazio-hartzailea behartuta dago lan arloan, Gizarte Segurantzakoan eta Laneko Osasunean kontratuaren xede diren lanen inguruan indarrean dauden arauak betetzera.

Halaber, Udalari aurkeztu beharko dio lan arriskuen prebentzioko dokumentazioa, V. ERANSKINA

ARTÍCULO 7

Prevención de Riesgos Laborales

La empresa adjudicataria está obligada al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de Seguridad Social y Salud en el Trabajo, respecto de los trabajos objeto del contrato.

Asimismo deberá presentar al Ayuntamiento la documentación de prevención de riesgos laborales que se acompaña como ANEXO V.

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

Dokumentazioa kontrolatuko du lan-arriskuen prebentzioko teknikariak eta aurkeztu beharko da gutxienez zerbitzua ematen hastea aurreikusten den baino 10 egun lehenagotik.

El control de la documentación se ejecutará por el/la técnico municipal de prevención de riesgos laborales y deberá aportarse con una antelación de al menos 10 días a la fecha prevista de la efectiva prestación del servicio.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoa

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

II ERANSKINA / ANEXO II

BERAUN ERRETIRATU ELKARTEAREN TABERNAKO ALTZARIEN INBENTARIOA / INVENTARIO DE MOBILIARIO DEL BAR DEL CLUB DE PERSONAS JUBILADAS DE BERAUN

0,00	**Edalontzi garbigailua**/ Lavavasos Modelo ITALBAR: **(1).**
	2 ataleko Kafetera / Cafetera de 2 grupos Modelo EXPO BAR: **(1).**
	Kafetera azpiko 3 ateko hotzgailu industriala/ Frigorífico bajo cafetera 3 puertas industrial. **(1).**
	3 ateko hotzgailuko Monoblock mostradoreko barra / Mostrador Monoblock de barra frigorífico 3 puertas. **(1).**
SUKALDEA / COCINA	**Hotzgailu bertikala** / Frigorífico vertical. ASPES. **(1).**
	Sutegi industriala labearekin / Fogón industrial con horno. JEMI. **(1).**
	Ke erauzgailu industriala/ Campana extractora. BALAY Industrial. **(1).**
	Ontzi garbigailua / Lavavajillas. DAEWOO. **(1).**
BILTEGIA / ALMACÉN	**Metalezko apalak** / Estanterías metálicas. **(1).**
	Arropazaindegi takila / Taquilla guardarropas.**(1).**

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

III. ERANSKINA / ANEXO III

HIZKUNTZA ETA ERANTZUNKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAREN BETEBEHARRAK ETA ZERGA ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKO KONTSULTA EGITEKO BAIMENA	OBLIGACIONES LINGÜÍSTICAS, SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL Y AUTORIZACIÓN PARA CONSULTA TRIBUTARIAS Y CON LA SEGURIDAD SOCIAL

Jaun-andrea Don/Doña		NAN DNI	
Helbidea Dirección			
Noren ordez En representación de		IFK IFK	
Egoitza soziala Domicilio social			

ADIERAZTEN DUT

1) Hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubideari jarraituz, eta herritarren eskubideak bermatu daitezen, kontratua gauzatzerakoan, ondorengo neurriak hartuko ditudala:

a) - Udal araudia beteko dut, Udal Hizkuntza Politika Departamentuaren txostenean jasotakoaren arabera.

b).- Hori horrela, Kontratuaren zereginak gauzatzeko beharrezko hizkuntza-gaitasuna duen langile kopurua atxikiko dut, uneoro zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea bermatzeko.

DECLARO

1) Que en cumplimiento del régimen de oficialidad de los dos idiomas oficiales, y con el fin de garantizar los derechos de la ciudadanía, en la ejecución del contrato adoptaré las siguientes medidas:

a).- Daré cumplimiento a la normativa municipal, conforme a lo señalado en el informe del Departamento de Política Lingüística Municipal.

b).- A esos efectos, adscribiré para la ejecución del contrato, el personal con capacidad lingüística necesaria para la ejecución del las tareas del contrato, de forma que se garantice en todo momento la prestación del servicio en las dos lenguas oficiales.

2) Beraungo Jubilatu etxeko taberna-jatetxe kontratuari dagokionez, eta dagozkion ondorioetarako, erantzukin zibileko asegurua daukat, kontratua exekutzeak Errenteriako Udalari edo hirugarren batzuei eragin dakizkien kalteei erantzuteko adinakoa.

2) Que en relación al contrato del Bar-restaurante del Club de Jubilados de Beraun y a los efectos que procedan, dispongo de un seguro de responsabilidad civil en cuantía suficiente para responder de las obligaciones que le puedan corresponder por daños causados al Ayuntamiento de Errenteria o a terceros como consecuencia de la ejecución del contrato.

3) Honen bitartez, Errenteriako Udalari baimena ematen diot enpresa/pertsona adjudikazio-hartzailearen zerga informazioa kontsultatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko dituenetan egunean dagoela egiaztatzeko. ☐


3) Así mismo, por la presente autorizo al Ayuntamiento de Errenteria para la consulta de la información tributaria de la empresa adjudicataria al objeto de comprobar que se halla al corriente en sus obligaciones tributarias con la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Seguridad social.


Errenterian, (e/a)n

Stua./Fdo.:

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

IV ERANSKINA / ANEXO IV





ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

V. ERANSKINA / ANEXO V

ERRENTERIAKO UDALARI BIDALI BEHAR ZAION LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOKO DOKUMENTAZIOA:	**DOCUMENTACIÓN DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES A REMITIR AL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA:**
LANGILEEN DOKUMENTAZIOA	DOCUMENTACION DE TRABAJADORES
1.- Lan egingo duen pertsonalaren zerrenda bere NAN-arekin.	1.- Relación de personal con número de DNI .
2.- Lan arriskuen ebaluazioa eta ekintza zuzentzaileen planifikazio lanpostu bakoitzak betea.	2.- Evaluación de riesgos laborales y planificación de acciones correctoras cumplimentada por cada puesto de trabajo.
3.- Langileei emandako arriskuen eta prebentzio neurrien informazioa.	3.- Información de riesgos y medidas preventivas entregadas a los trabajadores.
4.- Langileei emandako formazioa.	4.- Formación impartida a los trabajadores.
5.- Norbera Babesteko Ekipamenduaren ematea (beharrezkoak direnak eta homologatuak).	5.- Entrega de equipos de protección individual (los necesarios y homologados).
6.- Gai direla adierazten duten agiri medikoak. Prebentzio zerbitzu batean egin eta enpresa medikuak sinatuta osasun zaintzaren barruan.	6.- Certificados médicos de aptitud. Realizados en servicio de prevención y firmado por médico de empresa dentro de la vigilancia de la salud.
7.- Lan ekipo erabiltzen badute, lan ekipoen zerrenda eta pertsonalaren erlazioa (eskuzko erremintak, erreminta elektrikoak eta lan ekipoak). CE marka izango dute edo OCA bitartez ED 1215/97-ra egokituko dira	7.- En caso de utilización de equipos de trabajo, se adjuntara ,relación de Equipos de Trabajo y personal que hara uso.de ellos.(herramientas manuales, herramientas eléctricas y equipos de trabajo). Serán con marcado CE o adecuados al RD 1215/97 mediante OCA.
8.- Bere kasuan, baliabide prebentiboa (izendapena eta formazio zihurtagiria bidali). Ez bada behar, espresuki adierazi behar da bidaltzen den dokumentazioan.	8.- En su caso, designación de recurso preventivo (enviar nombramiento y certificado de formación). Si no hace falta, hay que señalarlo expresamente en la documentación enviada.
ENPRESAREN DOKUMENTAZIOA	DOCUMENTACION DE EMPRESA
1.- Lan arriskuen prebentziorako esleipendun enpresaren pertsona kontaktua zehaztu.	1.- Especificar la persona de contacto en la empresa adjudicataria para prevención de riesgos laborales.
2.- Organizazio prebentiboaren modalitatea azken ordainketarekin.	2.- Modalidad de organización preventiva con último pago.
3.- Mutuarekin egindako elkartze-hitzarmenaren poliza, edo Gizarte Segurantzarekin bere kasuan. Azken ordainketa gehitu.	3.- Póliza asociación a Mutua, o con la Seguridad Social, en su caso. Adjuntar último pago.
4.- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta ordainketaren azken erreziboa.	4.- Seguro de responsabilidad civil con copia del último recibo de pago.
5.- Horrela badio hitzarmen kolektiboak, istripu	5.- Si procede por convenio colectivo, seguro de

ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb

asegurua, azken ordainketaren justifikazioarekin. Ez bada beharrezkoa, espresuki adierazi behar da bidaltzen den dokumentazioan.

6.- Udalean lan egingo duten guztien TC1 eta TC2. Kontratazio berriekiko TA2. Autonomoen kasuan, Gizarte Segurantzan ordainketak eguneratuak dituenaren ziurtagiria. Aldizka informazio hori bidaltzea eskatuko da.

7.- Ogasun eta Gizarte Segurantza ordainketetan eguneratuak egotea ziurtatu (salbu esleipen prozedura baten ondorioz esleipena jaso izanez gero, kasu horietan aurretik aurkeztu dutelako dokumentazioa).

OHARRAK:

- Dokumentazioa, finkatutako epeetan bidaliko da.

- Azpikontratazio egiten denean edo langileen aldaketa dagoenean, haien dokumentazioa bidali behar da.

- Errenteriako Udalean itundutako zerbitzuak betetzeko kontratistak egiten dituen azpikontratazioen berri emateaz gain, azpikontratazioak dauzkan mugekin eta araudiarekin bete beharko du (30/2007 Legea, sektore publikoko kontratuak, 32/2006 Legea, eraikuntzako sektorean azpikontratazioa arautzen duena, 1109/2007 ED, 32/06 Legea garatzen duena, langile estatutuaren 42, 43 eta 81. artikuluak berregiten dituenak…etab.).

- Esleipenduna izan den enpresaren langileek kontratuaren exekuzioan izandako istripuak eta altak eta bajak komunikatuko dituzte Errenteriako Udalari.

- Kontratua indarrean dagoen bitartean egoki deritzon prebentzio arloko dokumentazioa eskatzeko eskubidea gordeko du Errenteriako Udalak.

- Esleipenduna izan den enpresak bere funtzioen garapenean bete beharreko arau juridiko eta tekniko guztiak beteko ditu.

- Ez betetzeak lanen geldiera ekar dezakete.

accidentes con justificante del último pago. Si no es obligatorio, se indicará expresamente en la documentación remitida.

6.- TC1 y TC2 de todo el personal que trabaje en el Ayuntamiento. Personal reciente contratación TA2. En el caso de autónomos, certificado de estar al corriente en pagos a la Seguridad Social. Periódicamente se solicitará se remita ésta información.

7.- Acreditar estar al día en el pago a Hacienda y la Seguridad Social (salvo en los casos en los que sea adjudicatario por medio de procesos de adjudicación en cuyo caso ya se habrán presentado dichos documentos).

NOTAS:

- La documentación será remitida dentro de los plazos indicados .

- Si se subcontrata o se sustituye al personal se deberá presentar documentación complementaria.

- El contratista está obligado a comunicar las subcontrataciones que realice para desempeñar servicios concertados con el Ayuntamiento de Errenteria, además de cumplir con las limitaciones y normativa al respecto (Ley 30/2007 de 30 de octubre de contratos del sector público, Ley 32/2006 reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción, RD 1109/2007 de 24 de agosto por el que se desarrolla la Ley 32/06, Ley 43/2009 de 29 de diciembre que reforma la los artículos 42,43 y 81 del ET…etc).

- Se comunicarán al Ayuntamiento las altas y bajas y los accidentes que personal de la empresa adjudicataria durante la ejecución del contrato.

- El Ayuntamiento de Errenteria se reserva el derecho a solicitar la documentación que en materia preventiva estime oportuno durante la vigencia del contrato.

- La empresa adjudicataria cumplirá con las normas jurídicas y técnicas que le sean de aplicación en el ejercicio de sus funciones.

- Los incumplimientos pueden dar lugar a la paralización de trabajo.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU42694c84-ebc6-4b90-9416-891b1d0d70cb**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2021OZER0030-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA/DOCUMENTO CONDICIONES

Data / Fecha: 2021/10/21 12:55:31
Sinatzailea 1 / Firmante 1: LEIRE SEIN ARBELAITZ - 15258623D